

parfait amour

ZIGOR GARRO



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

ZIGOR GARRO

Parfait amour

SESMA-LODOSA

ERBESTEA

TXANKETE HIL ZEN EGUNEAN iritsi ginen Mendabiara gure ama Klara, aitona Tete, amona Beatriz, Hugo anaia eta bostok. 1982ko otsailaren 7a zen. Herri osoa zegoen Florida tabernan bilduta telebistari begira, negar batean, eta Armendariz-Sorarraindarrok, tristura kolektibo hura ulertu ezinik. Hotz ikaragarria zegoen, herriko adardun guztiak adargabetzeko moduko haizea, eta behe-lainoak dena inguratzen zuen, beldurrezko film batean bezala. Inguruko paisaia laua zen, desolatua eta lur kolorekoa. Etxeak lurretik sortuak ziruditen, edo haitzetan zizelkatuak. Mendabia okrea zen, eta bertakoak betilun, isil eta barrenkoiak. Aitona Teteri ere halakoxe aldartea jarri zitzaion iritsi bezain pronto. Bere jaioterriak ez zuen hark espero bezala hartu mende Erdiko erbestealdiaren ostean. Txanketek protagonismoa lapurtu zion, eta ez gutxi, baina galtzaileen bandokoa izateak ere bazuen bere parteak.

Galtzaileen bandokoa esan dut, nahiz eta 1936an ez zen gerrarik izan Mendabian: lubakirik gabeko sarraskia izan zen. “Inoiz ikusi gabeko gaiztakeria”, esaten zuen aitonak, “eta jendetza elkarren arteko lehian gaiztakeria erakusteko, auzokoaren mina ospatuz, pozarren hura hilda ikusteaz eta haren familia guztiaz gabetuta eta gosez”.

Aitonak ozta lortu zuen sarraskiari iskin egitea, Bizkaira ihes eginez. Bertan CNTko *Malatesta* batailoian borrokatu zen, frontea erori arte. Handik ere ihes egitea lortu zuen eta, hainbat kiderekin barku bat bahituta, Frantzia erbesteratu zen. Marseillan lan txikiak tartekatu zituen, bigarren mundu-gerrarekin jendarmeei atxilo hartu eta kontzentrazio-esparru batean sartu zuten arte, Oranen, Aljeria *frantsesean*. Militar kolonial frantsesek presoak zangak zulatzerak behartzen zituzten, ondoren leporaino lurperatu, aurpegia eztiz gantzutu eta xinaurriek irents zitzen. Handik ere ihes egitea ere lortu zuen Tetek, aljeriarren laguntzaz, nora eta Argentinara. Han egunkari saltzaile hasi zen, “periodista” lanetan, aitonak esan ohi zuenez. Goizeko hirutan jaiki, lauak eta erdirako kioskoa ireki eta egunkariak saltzen zituen. Ohiko bezeroen artean aitonak estima berezian zuen Matias Krivos austriarra, Los Polvorines auzoko langilea. Goizero

haren izena papertxo batean idatzi eta *Argentinisches Tageblatt* egunkariaren gainean uzten zuen. Matiasen adeitasun handiz eskertzen zion, germaniarren doinu gogor horrekin.

Garai hartantxe, 1951ko egun batez ezagutu zuen Tetek gure amona Beatriz Mecchi. Beatrizek gurasoen liburu-dendan lan egiten zuen, *La Mancha* izeneko, Corrientesen. “*Tenía toda la gracia* —esaten zuen Tetek—, *¡me volvió chinchorra!*”. Bost urte gazteagoa zen amona eta dena irakatsi zion. Aitona 50 kilotan jarri zen, eta lagunak asaldatzen zitzaizkion: “*Me decían que comiera más, pero no que hiciera menos jodienda*”. Bere hitzak dira. Tetek Beatrizi ezkonsari gisa garbigailu bat eskaini zion, auzoko lehena. Berehala heldu zen alaba, gure ama. Aitonak *la India* esaten zion Klarari, bere ebanozko txirikorda oparoagatik.

1960ko goiz batez egunkaria eskuetan hartu eta Matiasen argazkia ikusi zuen aitonak. Mossadek Adolf Eichmann nazia bahitu zuen Buenos Airesen. Adolf Eichmann, Hitlerren erregimeneko ssko ofiziala, judutarren deportazioen antolaketa eta logistikaren arduradun nagusietakoa izan zen. 1942an juduen sarraski sistematikoa martxan jartzen lagundu zuen. “*¡Joputa desgracia, mecagondios!*”, amorratzen zen aitona, ziria nola sartu zion gogoratzen zuenean.

Horren ondotik aitonak *periodista* lana utzi eta podologo hasi zen, hiriko bainuetxe handienez, amona Beatrizek Margarita Weild kaleko pisua jostura tailer bilakatzen zuela. Tete tangoak abesteari ere eman zitzaion *arrabalean*. Kantua maite duen familia gara, baina aitona izan zen oholtzara salto egin zuen bakarra. Behin *Gordo* Podesta eta biak Rawsongo kartzelan eman zuten kantaldia. Gardelen *Volver* kantatzen hasi eta “*que veinte años no son nada*” esan zutenean, preso batek oihu egin zien: “*¡Desde allá no, pero desde acá sí!*”.

1969an amak Salvador Armendariz arrantzale pasaitarra ezagutu zuen, gure aita. Salba, aitona Tete bezala, anarkista zen, baina euskalduna eta abertzalea. Beretzat munduko langileria batzeko lehen urratsa herri oro askatzea zen. Hugo eta biok 1971ko ekainaren 18an jaio ginen, Retiro auzoan, Buenos Airesko portuko giroan: ostatuak, putetxeak, bizimodu herrikoi, kaletar eta bohemioa, eta gasolio usain betierekoa. Aita itsasora abiatzen zenean Kikiren eraikin zaharreko terrazara igotzen ginen amarekin, Rio de la Platan urruntzen zen itsasontziari eskuaz agur egitera. Kiki gure amaren lagun-mina zen, jostuna baita ere, eta “Buenos Airesko putarik ederrena”, gure aitaren esanetan. Aitak euskaraz egiten zigun beti, eta lehen kantuak ere irakatsi zizkigun, Mixel Labegueriren *Gure katua pitxitxi* edo Xabier Leteren *Seaska kanta*. Kuluxka orduan

gitarraz abesten zigun, gizon bizardunek ohi duten ahots sakon eta leunaz, batez ere Atahualpa Yupanquiren *Duerme, duerme, negrito*.

Larunbat guztietan familia osoa biltzen zen aiton-amonen *Malatesta-enean*. Hugok eta biok larunbata iristeko egunak zenbatzen genituen mantapean.

—Asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata: bost egun!

—Ez, larunbatak ez du kontatzen!

A, oroitzapen gozoak! Kanpoan haizeak orbela zirimolatan eramaten zuen bitartean, zuhaitzeko etxolan, Irisek arropak kentzen zizkidan, “orain garbitu egingo zaitut”, eskuez gorputza igurtziz. Gero bere arropak kendu eta “orain zuk ni” zioen, oilo-ipurdia azalean...

1976ko goiz batez ikusi nuen aita azkenekoz. Goiz hartan bizarra egin eta bibotea utzi zuen. Laneko alkandora urdina zeraman, oihal plantxatu berriaren usaina zerion. Musu eman zidan, inoiz baino estuago besarkatu, eta hitz hauek esan: “Zaindu ama, Paulo, laster itzuliko naiz”. Bost urte nituen, 53 igaro dira, eta oraindik alkandoraren usaina suma dezaket. Bere hitzak ere gogoratzen ditut, baina ahotsa oroitza lausoa da, ihesi doa. Bere aurpegia, ordea, zehatz gogoratzen dut, Super8 kamera eramaten baitzuen itsasora, irudiei begira arin genezan bere hutsunea, susmatu gabe, ala agian susmatuta, noizbait hutsunea betirako izango zela eta, are terribleago dena, zalantzatia, jakinarazpen ofizialik, heriotza ziurtagiririk eta gorpurik gabea. Itsasoak irentsi balu bezala.

Izugarria zenbat alda daitezkeen gauzak kolpe batean. Gauetik egunera, deblauki, eskolara joatea, lagunekin ateratzea, amaren eguneroko ohiturak, Tete eta Beatrizen ekintza eta erritual prosaikoak, ohiko bizitza bere alderdi handi eta ezdeusenetan beldur, isiltasun, paralisi eta zorabio bihurtu zen. Mendabiara joan arte, 11 urterekin, norbaitek etxeko atea jotzen zuen bakoitzean Hugok eta biok korrika egiten genuen pasilloan aita zelakoan, bagenekien arren aita giltzaz irekiko zukeela. Amak ezkutuan egiten zuen negar, eta gure aurrean egingo balu baino okerragoa zen, min sakonagoa salatzen baitzuen. Eta zer egin genezakeen guk? Aitaren hitzak zetozkidan: “Zaindu ama, Paulo, laster itzuliko naiz”. Eta horixe esaten nion amari: “Lasai ama, aita laster itzuliko da, berak esan zidan!”.

Ordura arte munduko zitalkeriari eusten zion hesia hautsi eta terrorezko uholde bat jausi zen denon gainera. Lagunak arrisku bihurtu ziren, ez zenekien nork salatuko zintuen. Izua barru-

barruraino sartu zitzaigun, hezur-muinetaraino. Halere, ama eta amona Beatriz Maiatza plazan elkartzen hasi ziren desagertuen beste ama eta senideekin, han denetik baitzen: amak, aita, emazteak, senarrak, seme-alabak, anai-arrebak, ahizpak, lehengusu-lehengusinak, eta osaba-izebak ere. Funtzionario eta poliziek beti gauza bera esaten zuten: “Ez dakigu ezer”, “ikertzen ari gara”, “ez daude hemen”. Hitz horiek automatikoki jaurtitzen zituzten, ahoak makina txikien moduan mugituz, begiak bestaldera. Baina Hugok eta biok bagenekien gezurretan ari zirela. Aita han zeukaten, gainerako atxilotuekin, gobernuaren egoitzaren barruan, lurpeko gela edo pasabideren batean, horma lodien atzean, eguneko argirik ikusi gabe. Zergatik ez ziguten egia esaten? Zergatik ez zituzten askatzen?

Egun batez Hugok eta biok *isiltasunaren desfilea* egin genuen auzoko plazan, “*queremos verdad*” zioen afixa makil bati lotua. Auzoko bi neskato baino ez zitzaizkigun batu. Indiar ilaran gindoazen, ahoa benda zuri batez estalita. Komisariatik igarotzean, polizia batek oihu egin zigun barrezka: “*¡Mirá, el ejercito rojo!*”. Beste behin, Retiro geltokiaren ondoko laratzean, kanabera eta egunkari-paperarekin egindako kometa aireratu genuen Hugok eta biok. Kometari itsasontzi bat marraztu genion. Aitaren ontzia zen. Hugok hariari eusten zion, portuko haizeak kometa zerura zeramala. Jendea begiratu gabe igarotzen zen, presaka. Baina izozki saltzaile zahar bat orgatxoa pausatu eta kometaren kulunkari begira gelditu zen tarte batez, zeremoniak merezi zuen isiltasunean. Gero kukurutxo bana eskaini zigun. Argirik gabe geunden gau batez, Margarita Weild kaleko pisan, kartoizko irudiak ebaki genituen amarekin, izara bat zintzilikatu, atzean kandela jarri eta, ilunpetan, ipuinak asmatu genituen. Marinela bere izar gidariaren bila argirik gabeko itsasoan, piztien beldur ez ziren umeek lagunduta.

Ordurako ohikoak ziren Maiatza plazako erromesaldiak, kartelak, zapiak, besarkadak. Amona Beatrizek enpanadak eramaten zituen, amak kafesne beroa termotan. Emakumeek ilea mozten zioten elkarri, iluntasunak irentsitako seme-alabaren istorioak kontatuz, haien izenak ez zitezen gal.

Gero senideak hasi ziren desagertzen, Maria, Azucena, Leonie, Alice.

ROSARIO

BUENOS AIRESEN EZ BAITZEN GIRO, Rosarioko probintziara joan ginen 1978ko neguan. Han amak Julio ezagutu zuen. Julio Figueroa ez zen gure aita, ez zuen portuko gatzik azalean, ez soken aztarnarik eskuetan, ez arrantza-ontzien kirrinka hezurretan. Julio Figueroa dentista zen, eskuak leun, itxura aratz, ongi hezia. Gozoa hitzetan, baina itsaskorra eta menderatzailea. Portzelanazko hortzak taxutzea baino plazer handiagoa eragiten zion besteen obedientzia neurtzea. Julio Figueroa azkar sartu zen etxera, eta guk hura gordean begiratzen ikasi genuen, noiz, nola, zergatik eta zertarako hitz egiten zuen, zein asmorekin mugitzen zituen eskuak, nola loditzen zuen etxeko airea bere usain eta presentzia arrotzaz, bertan geratzeko etorria.

Tete ez zen fio. *“Los que hablan bajito esconden el cuchillo”*, esan zion behin amonari. Beatrizek ez zuen ezer esaten, baina bere begietan halako ezinegona antzematen zen. Amak eta Juliok gero eta plan gehiago egiten zituzten elkarrekin, eta aiton-amonak gure babes sare bihurtu ziren berriro, ez militarren itzala uxatzeko, etxe barrura sartu eta handituz zihoan hotza epeltzeko baizik.

Rosarioko neguaren hezetasun iluna gogoratzen dut, eta trenbide bazterreko etxe grisak, ia leihorik gabeak, aurpegi itsuen gisa. Amak irribarre egiten zuen Julio inguruan zegoenean, baina irribarre hartan bazen halako ahanztura behartu bat, eta gauza batzuk kontatzeko beldurra. Hugok ere ez zuen askorik hitz egiten orduan; ontzi txikiak marrazten zituen behin eta berriz, eta galdetzen nionean itsasorantz zihoala esaten zidan, norekin zihoan esan gabe. Nik banekien, hark banekiela zekien bezain ongi. Aita altxor izatetik sekretu aitorrezin izatera igaro zen oharkabea. Gauez, baina, hark irakatsitako hizkuntzan aritzen ginen Hugo eta biok, ahanzturak ez zitzaiz behintzat hitzak eraman.

Ostiral hartan ardo beltz botila eta haragiz betetako bi paperezko poltsa besoetan iritsi zen Julio Figueroa.

—Gaur okela erreko dugu! —esan zuen, poltsak mahai gainean utziz, opari bat uzten duenak bezala.

Hugok, eguneroko iruditxoak ebakitzen ari baitzen lurrean, burua altxatu zuen pozarren.”Okela erre” esamoldeak boterea zuen etxean. Eguzkia zeharka erortzen zen baldosazko patioan, eta amak plastikozko aulkiak atera zituen, denek arnas pixka bat har genezan. Juliok makilak eta adarrak bota zituen kolpe lehor batez. Hugo jauzi batez zutitu zen.

—Nik piztuko dut! Utzi niri! —esan zuen. Zazpi urte zituen, baina une hartan txikiagoa zirudien, beso argalak aitaren alkandora erraldoietatik ozta irteten zitzaizkiola. Juliok begiratu egin zion, ez mesprezuz, baizik eta helduek interesa itxuratuz erakusten duten pazientzia nekatuaz.

—Ba al dakizu?

—Bai, noski! —gezurra esan zuen Hugok.

Amak sukaldetik hitz egin zuen, goxo:

—Uztazu, Julio. Proba dezala.

Juliok sorbaldak altxa eta pospolo-kaxa luzatu zion zeremoniaz, paradisuko giltzak eskainiko balizkio bezala.

—Ea, txapeldun.

Hugok aitari egiten ikusi zion bezala pilatu zuen egurra, adarrak behean, makil lodiak goian gurutzatuta. Baina pospoloa piztean sugarrak airea miazkatu eta itzali egin zen, bigarrena bezala. Julio begira zegoen, besoak bizkarrean lotuta. Hugo izerditan zegoen.

—Lasai, Hugo! —saiatu nintzen anaia adoretzen.

Hirugarren pospoloa hatzetatik irristatu zitzaion Hugori. Juliok hasperen egin zuen zerura begiratzuz. Hugo pospoloaren bila makurtu zen ziztuan.

—Hemen daukat!

Laugarren saiakerak ke eta sufre usaina utzi zuen.

—Horrela ez! —marmar egin zuen Juliok, baina ez zen mugitu laguntzeko.

Klarak patatak zuritzeari utzi eta begiak altxatu zituen.

—Utziozu praktikatzen.

—Praktikatzeko eskola dago, hau jatea da —esan zuen Juliok begiak jaso gabe.

Ordurako Hugok eta biok bagenekien aldiro Juliok bere gorputza abandonatu eta munstro ezezagun bat jabetzen zela hartaz. Halakotan kopetako azala tenkatzen zitzaion danbor baten moduan.

Bosgarren pospoloa ezer piztu gabe kontsumitu zen. Hugok etsipenez begiratu zidan, Julioaren kopeta danbolin bilakatzen zela. Makilekin jo zeniezaiokeen txistuari laguntzeko. Begiradaz anaia lasaitzen saiatu nintzen, kutxa torazikoan bihotza trostaka.

—Aski da! Nahikoa! —esan zuen Juliok, Hugori kutxa kenduz.

Hugori munduko desanparo guztia bildu zitzaion begietan.

Julio Figueruari behatzetatik ihes egin zioten pospoloek. Lehena erdibidean hautsi zen. Bigarrenak ozta-ozta piztu zuen adaxkaren bat, kea itzali aurretik. Dentista prestuak hortz artean madarikatu zuen eta amak eskuak lehortu zituen mantalean.

—Utzi niri.

—Ez! —oihu egin zuen Juliok pospolo kaxari eutsiz, baina Klarak kendu egin zion.

—Utzi, ez izan egoskorra.

Juliok nahasirik begiratu zion, ezer esaten asmatu gabe. Bi mugimendutan, suak txinparta egin zuen.

—Braba! —oihu egin zuen Tetek atetik.

—Braba ez, brabisima —esan zuen Juliok, sugarrak begietan. Bibrazio bat suma zitekeen haren kopetan, abere bat kaskezurretik irteteko ahaleaginean balego bezala.

EGUN BATEZ POSTARIA heldu zitzaigun etxera bere bizikleta kalamastran.

—Gutuna Jose Sorarrain Gaiurraldearentzat —iragarri zuen kartazala amari luzatuz.

Aitonaren izena entzuten nuen lehen aldia zen.

—Jose ehizan atera da goizean, nik hartuko dizut, Mario —esan zion amak. Hatz-mamiez kartazala laztandu zuen izena irakurriz—. Mendabiakoa da! —egin zuen oihu amak, eta urtetan ikusi ez nion bozkarioz hitz egin zion postariari—: Ez dakizu zer poza hartuko duen aitak, Mario!

—Nire lana da, Klara anderea!

AMAK ATE ONDOKO MAHAITXOKO TIRADERAN sartu zuen gutuna, poliki, txoritxo zauritua balitz bezala. Gero orburuak prestatu zizkion aitonari, Mendabiako erara, zainzuri, baba, baratxuri eta

urdaiazpikoarekin. Bitartean Julio heldu zen kontsultatik, petralduta igorri zioten portzelana kalitate txarrekoa zelako, baina amak lapikoaren lurrinarekin bigundu zuen, eta gutunaren berria ere pozarren hartu zuen. Furgoi zaharrean iritsi zen, bozina joz eta leihotik oihuka:

—India, India! Egin lekua hozkailuan!

Dena zen bozkario eta festa-giro, aitaren heriotza eta militarren kolpea iraganeko kontua balira bezala, denborak bere efektu baltsamikoa egin balu bezala. Tetek kobrezko hariak lotutako ehizakiak altxatu eta bandera moduan astindu zituen, amona Beatrizek, amak, bi anaiok eta Julio Figuerok berak, bibaka eta barrez, atetik txalotzen genuela. Ehizakiak harrikoan utzita, ama gutunaren bila joan zen, kantari eta saltoka. Mahaitxoaren tiradera irekitzearekin harridura keinua egin zitzaion.

—Gutuna? Non da gutuna?!? —oihukatu zuen, belauniko jarrita, eskuak tiraderan sartuz eta haztamuka eginez, gero eta bortitza. Paulo, Hugo, non da aitaren gutuna? —egin zuen garrasi, tiradera atera eta barrukoak lurrera botaz.

—Ziur zaude hor utzi duzula? —galdetu zuen Juliok.

—Ez naiz ba ziur egongo, neronek utzi dut eta!

—Ez ote duzu beste nonbait gorde? Azken aldian despistatu samar zabiltza —esan zuen Juliok. Amak duda egin zuen bat-batean.

—Zein gutunaz ari zarete? —esan zuen Tetek.

—Gutuna iritsi da zuretzat Mendabiatik —esan zuen Juliok.

—Lasai, aita, azalduko da —esan zuen amak, begiak malkotan.

—Bai, azalduko da, Jose —esan zuen Juliok, besoa aitaren sorbaldan paratuz—. Egia da azken aspaldian zure alabak beste nonbait duela burua... Dena galtzen du, giltzak, kartera, erosketa-zerrenda... Aurrekoan olio potoa hozkailuan sartu zenuen!

—Baina denok ikusi dugu gutuna tiradera horretan sartu duela —esan zuen Hugok, Juliori begietara begira. Juliok barre egin zuen.

—Bai, kontua da nora atera duen gero! Ezpada zuk atera duzula, ezta, txapeldun? —esan zuen serio.

—Nik badakit ez dudala atera, eta lepoa egingo nuke amak ere ez duela atera. Baina zurekin ez naiz fio!

Juliok Hugori jotzeko imintzioa egin zuen, baina Tetek eskua heldu zion:

—No te atrevas que te hago fiambre —esan zion—. No serías el primero.

BORTXAK BAHITU EGITEN GAITU, bere zirimolan sartu. Hasten gara ulertu nahi izaten, ez dagoenean zer ulertu. Hugok ez zuen dudarik, Juliok hartu zuen gutuna.

—Nik bezalaxe ikusi zenuen ama gutuna tiraderan sartzen!

—Baina zergatik hartuko zuen Juliok? Etxe bat eman digu!

—Ez naiz fio, aitonak ere badio sitsa baino txarragoa dela. Ez al duzu ikusten?

EGUERDI BATEZ, sukaldean bazkaltzen ari ginela, gutuna eskuetan sartu zen Hugo:

—Ez duzue asmatuko non aurkitu dudan, Julioaren kabinetean!

Julio zutitu zen, labana ezker eskuan eta, zirt edo zart, sekulako eskuinekoa jo zion Hugori:

—Gezurra! Gezurretan zabiltza! —egin zion oihu.

Hugok masailera eraman zuen eskua. Tetek zartagina hartu eta, zapla, errebes zehatza jo zion belarrian Juliori. Hark balantza baldarra egin zuen sukaldearen erdian, eskuak gerriraino jasota dantza egitera balihoa bezala. Denak geunden begira, zer gertatuko zain, denbora etenda, harik eta Julio atzera jausi eta aitonaren ehiza kakoetako bat belarrian sartu zuen arte. Hantxe iltzatuta geratu zen, begiak zabal, espantuka eta oihuka:

—¿Qué me hiciste, la concha de tu madre?

—Te lo advertí —zartagina Julioaren muturrean astindu zuen aitonak.

—¿Qué carajo me haciste, tarado? ¡Soltame, forro! ¡Soltame, hijo de puta!

—¡Callate o te remato, cabrón!

HANDIK BIZPAHIRU EGUNERA, kanpoan elur ekaitza zegoela, etxeko atea jo zuten bortitz. Amaren oin-hotsak entzun genituen pasilloan, eta jarraian amona Beatrizenak. Ez zen gure aita, jakina, baina

sekula ahaztuko ez dudan gizona zegoen atean, zuhaitza bezain garai eta sendoa, aurpegia erdi estalia.

—El hijo de mil putas del Julio buchoneó a tu viejo, lo andán rastreando —esan zuen leize batetik zetorrela zirudien ahots sakonaz, eta gehiago esan gabe joan zen.

Etxean inork ez zuen galderarik egin.

BIHARAMUNEAN MALETAK PRESTATU eta Rosariotik Buenos Airesera atera ginen gaueko omnibusean, errezelak itxita, munduaren begietatik gordeta. Buenos Airesen portuko usainak aitaren oroitzak mingarri eta aldi berean suspergarria ekarri zigun, baina amak ez zuen itsasontzirik topatu, eta aireportuan hegazkinak hartu gintuen, edo irentsi, orroka zebilen metalezko munstroa iduri. Sabelean korapiloa utzi genuen atzean Rio de la Platako lautada amaigabea, hodei ozeano batek itsasoa estali zuen arte. Madrildik tenez jo genuen Iruñera, eta handik autobusez Mendabiara. Soroak arre bihurtu ziren, etxeak buztin, eta haizeak ziztuka galdetu zigun nor ginen eta zertara gentozen.

MENDABIA

MENDABIARA IRITSI GINENEOAZ gogoan ditut errepide ertzeko mendi gorriak, makalen zurrumurrua, haize izoztua aurpegiari eta eskuei kosk eginez, harrizko zorua, etxe xumeak, isiltasuna kaleetan pausatuz, telebista piztuta tabernan, aulkiak barrari itsatsita, frijitu-usaina, aitonaren doinuaz arituagatik beste era batera begiratzen zuen jende hura, agure bakoitza bere zotza aho-ertzean, haurrak telearen aurrean pilatuta begiak bustita. Zergatik zen ba Txankete hura aitona baino inportanteago?

Gogoan ditut nahasmena eta malenkonioa, batez ere ama kontserba-fabrikan lanean hasi eta etxera berandu iristen zenean. Lan gogorra, ordutegi amaigabeak eta miseriazko soldata. Amonak arropa konpontzeko tailertxoak jarri zuen etxean, eta josteko makinaren hotsak kulunkatzen zuen egunerokoa. Arropa konpontzea bizitzak konpontzen saiatzea bezala zela zioen amonak, zauri, urradura eta zuloak ixtea, beti markak utziz. Amak ere josiko zuen lanetik irtetean, eta etxean egon arren, faltan genuen.

Tetek ez zuen 1936an utzitako Mendabia berraurkitu. Faxistek lagun gehienak hil zitzioten, ia mende erdi geroago agintean zirauten lurjabe eta jauntxoak aginduz. Anarkisten egoitza izan zen Florida tabernara joan ohi zen lagunak hilen artetik itzuliko zitzaizkiolakoan, eta baxoerdi batzuk edanda kaleetan galtzen zen, norbaitek herriko biztanleak ezezagunengatik ordezkatu zituela pentsatuz. Eta ez zen irudipen horditu hutsa: joan zenean plazan oinutsik korrika zebiltzan umeak gizon bihurtu ziren, aurpegi eta eskuak denborak gogortua. Hogeita hamar urtekoak laurogei urteko agureak ziren, eta besteak lurpean zeuden jada.

Erbesteak errealitatea izozten du, jendea eta paisaiak argazki batean bezala gordetzen, urtaroak igaro eta pertsonak zahartuko ez balira bezala. Aitonak ezin zuen diskordantzia hura eraman, eta herritik aldenduz joan zen. Arrantzari ekin zion ibaian, eta ibaiak bestaldeko *Gaztelako mendietan* untxiak ehizatzen. Igandeetan okela erreko zigun La Motan, bere esku hutsez eraiki zuen etxolan. Bertatik inguruko mendiak eta ibaia ikusten ziren. Eguzkiak, sartu ahala, dena laranjaz argitzen zuen. Ez zegoen ikuspegia mirestekoa leku hoberik. Tete gizon arrunt txukuna zen, dena ongi antolatua zuen beti. Eremua terraza bihurtu zuen, Ekialdean arroz soroak egiten dituzten bezala,

mailetan banatuz. Lurrean botila alderantzikatuak sartu zituen, botila lau eta alakatuak, ilunabarrean efektuak egiten zituztenak, katedral gotiko batean bezala.

Goiz batez, etxetik baratzera zihoala, Iruñeko autobusak amona Beatriz harrapatu eta bertan hil zuen. Ordurako bagenekien heriotzak berekin daramana ez dela pertsona besterik, baizik eta keinu eta hitz sare ikusezin bat, gauzak begiratzeko leku bat, denbora arnasteko eta mundua ahoskatzeko modu bat, ordura arte lagun egiten zigun presentzia bat, guk jakin gabe eusten gintuena, gure bizitzak lotzen zituen hari sekretu bat.

Tete La Motan erbesteratu zen behin betirako, bakardadean eta zurrutean. Amak zaindu ohi zuen mozkor arraildua, tulipa gorrien artean etzanda eta zutitu ezinik aurkitzen zuenean. Kafe termo bat ekartzen zion, janari pixka bat, eta suspertzen saiatzen zen. Guztiarekin, Hugok eta biok atsegin genuen aitonari bisitan joatea, bere etxolan sartu eta luze hitz egitea, amonaz, Argentinaz edo borrokatu zituen gerra guztiez. Kantuan ere egiten genuen, tangoak ala jotak, beti abesti tristeak.

Hugok eta biok amestu genuenaren kontra, Mendabian Argentinan baino are arrotzagoa zen aitaren hizkuntza. Herri osoan ez zen beste ume euskaldunik. Bakarra ere ez! Egun batez amak, euskara galduko genuelakoan, autobusean sartu eta Iruñera eraman gintuen, Zeferina Fontellasen *Abarzuza* liburu-dendan ipuinak eta kaseteak erostera. Dendan sartu orduko Hugok eta biok elkarri begiratu genion, “gogoratzeko?” esanez bezala. Ez genuen esan beharrik usainak, edo agian giroak, amonaren *La Mancha* liburu-dendara garraiatu gintuela biok. Zeferina amona bezala maitatu genuen hasieratik, eta ez soilik Rupert Ordorikaren *Ez da posible* eta, batez ere, Itoizen *Musikaz blai* gomendatu zizkigulako: “*Lemoiz inguratu pirata eta sioux, Bizargorri na-na-na-na-na ta Asterix, jake erregea-a-ari ontzi eta zaldiz...*”. Tupustean mundu ezezagun batean zanga egin genuen bi anaiok, arrain kolore anitzez beteriko itsaso mugagabe batean bezala.

Apurka-apurka, baina, Hugo eta bion munduak ere urrunduz joan ziren. Ohartzerako anaia futbol-taldean zebilen, futbolearen ez bazen palan, eta palan ez bazen bizikleta gainean, bere lagun txirrindulariekin. Ez zuen kirola besterik buruan, gorputzeko gihar guztiak lehertu nahi balitu bezala. Ni gitarraren sokei eragiten igarotzen nuen debora, Los Arcos auzoko umeekin etxolak eraikitzen, eta Palacio igerilekuetan, sudurra Stephen Kingen liburu batean sartuta, neska helezinengana heltzeko amarruak asmatzen.

Bitartean, 14 urteak beteta eta bibotea aurrenekoz eginda, Lodosako Pablo Sarasate institutuan hasi ginen. Mendabia, Sesma, Sartaguda, Andosilla, Alcanadre eta inguruko herrietako ikasleok bildu ginen bertan. Ez zegoen euskarazko klaserik. Paulo eta Hugo ginen ikasle euskaldun bakarrak, eta berehala “los gemelos vascos” izendatu gintuzten. Tomas Baigorri lodosarrak kotsakratu zuen bataioa:

—Tengo entendió que tú eres uno de los gemelicos vascos de Mendavia, ¿eh? —bota zidan aurkezpen txartel moduan.

—Aquí, en verdá, todos somos vascos, ¿eh? —erantzun nion, aitaren hitzak akorduan.

Tomasek algara egin zuen, hortzeri perfektua erakutsiz:

—Me gustas, chavalico —ebatzi zuen.

ORDUTIK TOMASEK bere hegalepean hartu ninduen, eta iruditu zitzaidan Moisesek niretzat itsasoa banandu zuela. Halaxe ibiltzen baitzen Tomas Baigorri institutuko pasilloetan, bere xarmaren dirdiraz bidea irekiz, lurretik zentimetro batzuetara lebitatuz. Tomas Baigorrik itsatsia zeraman arrakasta, ikaskideek irrikaz agurtzen zuten, bedeinkazioaren zain-edo, eta neskek intentsitate ezezagunaz begiratzen zuten. Tomasek bazuen nondik zetorkion ez genekien kultura kaletarra, hark irakatsi zidan *punk* eta *ska* musiken arteko aldea, baita bourbona eta whiskiaren artekoa ere, eta lehen kostu-barra harrapatzera lagundu ninduen, nire ezjakintasun eta ikara ezkutatzeraz behartu gabe. Politikan ere ezagutza bereziak zituen. Bazekien zer ziren Nikaraguako Fronte Sandinista eta Kubako Iraultza, bazekien zer esan nahi zuen “*ETA (m)*” edo “*Jarrai (KAS)*”. Bazekien manifestazioen oihuak eta hormetako pintadak interpretatzen. Tomasen ondoan amaren bularrari lotuta jarraitzen nuen, eta inoiz ez bezala piztu zidan zilborrestea eten eta mundura irteteko beharra.

Tomasekin La Barca tabernan bildu ohi ginen, ibaiertzean, eltxoei gure gorputz lerdenak eskaini eta, Hertzainak eta Kortaturen kaseteak *loroan* topera jarriz, Mendabiarrak asaldatzera. Laster hasi ginen ileak Sid Viciousen tankeran desorraztu eta zigarretak erretzen. Belarriak ere zulatu genituen, izotzez anestesiatu eta kateorratza sartuta, punk inimiziazio erritu moduan, algaraka eta

litro botilatik edanez. Aitonaren txabola ez zen oso urrun, eta aldiro tabernan azalduko zen, gure talde zaratatsuari gaitzespenez begiratu eta, barran bermatuta, pattar-kafea patxadaz edatera.

—Zer zabilta *pingo* horiekin? —esan zidan behin.

—Lagunak ditut, aitona.

—Jendaila da, ondo dakit. Fernandez de Pierola, Mauleon, Modet, eta ipurdiari kaka bezala pegatuta daramazun hori, Baigorri! Denak ezagutzen ditut, eta egidazu kasu, jendaila dira. Lurjabe putasemeak.

—Errua ez da heredatzen, aitona.

—Ez, ala? —barre egin zuen aitonak, bere hortz horitu bakanak erakutsiz.

BIZITZAN LEHEN ALDIZ lotsa sentitu nuen aitonaz, eta harengandik aldentzeko irrika, gaixotasun kutsagarriren batek jo balu bezala. Aitona iraganeko arranguretan katigatua zegoen, eta halaxe nahi ninduen ni. Ezin nuen ulertu zergatik zapuztu nahi zidan azkenik aurkitu nuen zoriona, zergatik ez zidan, aitona eta anarkista moduan, nire kasa hegan egiten uzten. Pogoaren eta bizitzaren erritmo frenetikoak uxatu zizkidaten arrangurok. Arin baino arinago ahanzten dugu.

BOTILA LAPURTUAK

UDABERRIAREKIN BATERA institutuko irakasleek irteera bat antolatu ziguten, bi eguneko kanpamentua Iribas izeneko herri batera, Lekunberri inguruan. Helburua beti baitzen mozkortzea, Tomasek botila piloa erostea lortu zuen, bakoitza barrokoagoa forman, gustu eta kolore guztietako edari alkoholduenez beteak: ginebra, rona, whiskia, tekila, denetik. Nahasteko, Fanta eta Coca-cola. Bazen botila urdin bat, polit-polita, likore urdin batekin, *Parfait amour* zioena frantsesez. Futboleko baloiak eramateko poltsa handi batean ekarri zituen eta, nola gogoratzen ez dudala, eskolako autobusean sartzen asmatu genuen, irakasleen bizkar. Gau hartan, ordea, ekaitza handia izan zen eta txangoa bertan behera geratu zen. Herrira itzultzean Tomasi botilak ezkutatzeari eskaini nion.

Aitonak La Mota inguruko bidezidor guztiak irakatsi zizkidan, eta ezagun nuen erabat ezkutuan zegoen etxola zahar eraitsi bat, heze baino hezeagoa, goroldioz estalitako harriekin. Ezkutaleku egokia zen. Tomas eta bioi Irastorza anaiak batu zitzaizkigun, Omar eta David, Vianako lagun euskaldunak. Hantxe ezkutatu genituen botilak, harri, orbel, sastraka eta hezeguneetako landaredi oparoaren artean. Lana amaitu eta, handik irten orduko, aitona Teterekin egin genuen topo. Untxi bat zekarren belarrietatik helduta, muturretik odola zeriola. Elkar agurtu eta bakoitzak bere bideari jarraitu zion.

—Como le trinquen a tu abuelo cazando una coneja paridera, se le va a caer el pelo —esan zidan Tomasek.

—¿Paridera? ¿Qué quieres decir?

—¿Pues no ves que la coneja venía preñaa?

—No, ni me he fijao. Y no me des la lata con el abuelo, que contento me tiene, ¿eh?

Sekainak zeharkatu genituen, eguzkiak tulipak argitzen zituela, soroak odol-orbanez betez. Zer zen ba ikuskizun hipnotikoa. Errepidera iristean Hugo igaro zen tropelean eta bizikletan zutituz agurtu gintuen, eskua buruan paratuz gandor baten moduan:

—¡Esos punkis!

Omarrek eta Davidek aho bete hortz begiratu zioten:

—¡Anda, si es igualico que tú, macho!

—¡Qué paranoia, jodó!

Barrezka esan genion agur elkarri, botilak ondorengo parrandan edango genituela aginduz. Ezer ez baitzen seguruago geroko parranda baten aukera baino.

BIHARAMUNEAN JAIEGUNA ZEN eta botilak ikustera jaitsi nintzen. Iritsi eta espantuz ikusi nuen botilak desagertu egin zirela. Hura atsekabea! Nire erantzukizunari huts egin nion eta, kolpe batez, puntu guztiak galdu nituen lagunekin. Ezkutalekuari erreparatu eta bezperan baino askoz okerragoa iruditu zitzaidan. Etxera lasterka igo eta Tomasi deitu nion. Tomasek haserre bizian erantzun zidan. Ezkutalekura jaitsi nintzen atzera, lur-jota eta hatsanka, harria bera eskuez zulatzeke prest, hain etsia baitzen nire nahigabea, hainbeste irrikatzen bainuen denboran atzera egin eta morroi fidagarriaren rola berreskuratzea, baina alferrik.

Igande gaua begiak bildu ezinik igaro nuen, azalpen eta estakuru sinesgaitzak asmatzen lagunen amorrua baretu eta nire kreditu pertsonala berreskuratzeke. Baina institutuan sartu eta, ustekabea, lagunek ongi hartu ninduten. Adarra jo zidaten, noski, baina Davidek eta Omarrek bonba bat zekarten: La Polla Recordsek kontzertua eman behar zuen Vianan. Gertakizuna irudikatu genuen euforiaz, Evaristo oihuka eta txistuka, punki aldrak pogoan, baina nik ezin nuen burutik kandu aitona gurutzatu genueneko unea, eta bihotza hausten zidan pentsatzeak botilak lapurtu zizkigula. Alkoholikoa izateak zer esan nahi zuen ez nekien zehazki, baina banekien aitona hala zela. Beraz, hura ikustera joatea erabaki nuen.

Etxolarantz jaisten hasi nintzen, aitona Teteren hartxintzarrezko bide politean barna. Hor zen etxola, eta kanpoko mahaiaren gainean, botila huts meta txiki bat. *Parfait amour* botila falta zen, baina besteak hor zeuden! Jiratu eta etxera abiatu nintzen korrika, asaldaturik baina lasai, amorru handia bainuen susmopean egon izanagatik. Lagunari deitu nion:

—Tomas, zatoz La Motara berehala, botilak aurkitu ditut!

—Beteta ala hutsik?

—Hutsik!

—Ze presa, orduan?

—Aitonak hartu zizkigun!

Tomasek algara egin zuen:

—Horrek bai jakin! Afaria daukat taldekideekin, bihar ikusiko dugu elkar.

Hurrengo egunean etorri zen, sekulako ajearekin, eta futboleko lagun batzuekin. Han zen Borja delako tipo mesprezagarria, beti dirua zeukana inork dirurik ez zuenean, oso harroputza eta gaiztoa. Haiek ikustean listua irentsi nuen. Teteren etxolara iritsi eta Tomasek oihu egin zuen:

—Horiek dira! Putasemea!

—E, lasai! —egin nion.

Borja madarikatu horrek harri bat hartu eta botilen kontra bota zuen. Oihu egin nion, baina berehala talde osoa hasi zen harrika, aitonaren beirazko maila ederrak txikituz. Hondamena izan zen. Taldearen atzean geratu nintzen, txundituta eta desesperatuta. Inor baino haserreago nengoen aitonarekin, baina ezin nuen indarkeria hura ulertu. Ez nuen aitona defendatzen jakin, ezta taldeari aurre egiten ere. Tulipa soroaren barna korri egin genuen, denak gaiztakeriagatik barrezka, eta ni haien atzetik, barrea itxuratuz niri begira zeudenean, baina egindakoagatik lotsatuta.

Ironikoki, inor ez zen ohartu harririk bota ez nuenik, talde osoak jo baininduen balentria triste haren heroitzat eta, kolpez, ospe guztia berreskuratu nuen. Ordutik aurrera ahal bezainbeste saihestu nuen aitona. Ama konturatu zen, eta behin baino gehiagotan galdetu zidan, kezkatuta, zer gertatzen zen Teterekin, baina ez nion ezer esan. Ez nuen bere aitarengatik gaizki-esaka aritu nahi.

LUZE GABE IRITSI ZEN hainbeste irrikatu genuen La Polla Recordsen kontzertua. Benetako lurrikara ziren, astinaldi izugarria. Lehen gitarra riffetik diskoaren energia ehun aldiz biderkatu zen. Sabeletik heltzen zintuen, goratu, harrapatu, abiadura eroan eramane. Ez zen musika talde bat, tribu bat baizik, norabide guztietan saltoka, oihuka, dantzan. Eta ikusleak are zoratuago genbiltzan. Zer zen ba gizatasun animalia, biluzi, aske hura? Oraindik ere senti dezaket gau hartako askatasun mugagabea, gozamen bortitz eta sentsual lokabetua, astindu teluriko baten moduan grabitatea hautsi eta leherrarazten duena. Betiko sentituko dut, nire zainetan dabil, birus baten moduan.

AITAREN ITZALA

LA POLLA RECORDSEN soinu-ekaitzaren ondoren ere hutsune isil batek gogorarazten zidan atzean zerbait geratu zela, atzean beti geratzen dela zerbait.

Hugo eta biok Zeferinaren liburu-dendara joan ginen, Argentinako diktadurari buruzko hitzaldi baten aitzakian. Jendea isilik zegoen, airea bera etetearen beldur. Hitzik egin gabe sartu ginen, memoria minduak arnastuz. Pelado Dri zen hizlaria. ESMARI buruz hitz egin zigun, Argentinako diktadura militarren garaiko atxiloketa, tortura eta sarraski zentro klandestinoaz. Peladok ihes egitea lortu zuen, ESMAN bahitu eta torturatu ondoren, Paraguairantz ibaia zeharkatuta. Hildakoen artetik itzulitako mamu bati bezala entzun genion. Pelado gure aita izan zitekeen, antzik txikiena ez zuen arren.

Amaieran, liburu-denda husten ari zela, Zeferinarekin hizketan ibili ginen, Peladok arretaz aztertzen gintuela. Gure taldera hurbildu zen:

—Salvador Armendarizen semeak al zarete? —esan zuen, dagoeneko jakingo balu bezala.

Bihotza taupaka jarri zitzaidan.

—Bai... nola dakizu? —esan zuen Hugok.

—Berdin-berdinak zarete —esan zuen Peladok—. Ispiluak bezala!

Airearen pisua aldatu zen. Zorabiatuta nengoen.

—Gure aita ezagutu zenuen? Ba al dakizu ezer berari buruz? —esan zuen Hugok.

Peladok geldi-geldi iraun zuen, baita denborak ere. Gero besarkatu egin gintuen, begiak bustita. Ez zen edozein besarkada, aspaldian gordetako doluminezkoa baizik, keinu bakarrean kontsolamendua ekarri nahi duena.

—Zuen aita ezagutzeko zortea izan nuen, bai —esan zuen—. Guretzat “El Vasco” zen. Ausarta, sendoa, kidea. Ikusten dut ez dakizuela, eta sentitzen dut esatea ESMATik ihes egiten saiatu eta hil egin zutela. Beti zeraman aldean zuen argazkia. Ihes egiteko bulkada ere ez zitzaion etorri bere burua salbatzeko behar hutsetik, edo borrokari berriro lotzeko erabakitik, zuengatik egin zuen. Zuekin berriro elkartzeagatik, milikoen gainetik.

Errebelazioak itsaso amorratu batek bezala jo gintuen: aitak berekin eraman gintuen azken uneraino. Gurekin berriz elkartzeagatik eman zuen bizia.

—Beti gogoratzen dut guri kantuan —esan zuen Hugok—. Baita bere itsasontzian ere, utzi zizkigun filmengatik. Orain horma bat igotzen gogoratuko dut, gure argazkia poltsikoan. Eta tiro bat.

LIBURU-DENDATIK ATERA GINEN, apurtuta eta aldi berean inoiz baino osoago, munduarekin haserre baina aldi berean adiskidetuago, gu besarkatzeagatik hil zen aitaren memoriari esker. Iruñeko haizea jada ez zen hain hotza, zerbait aldatu zen: hutsuneak hor zirauen, baina ez hain huts, ez hain hil. Aitak maite gintuen eta gu, azkenik, bere heriotzaren oihartzun bizia ginen.

PARFAIT AMOUR

NEGU HARTAN ELURRA EGIN ZUEN. Hotz zen denean, hotz zen etxean. Aita guregatik hil zela jakiteak ez zuen bere hutsunea estaltzen, eta aiton-amonak ere falta zitzaizkigun. Goiz batez amak barazki otarra eta kafesne termoa prestatu zizkion aitonari, eta hura ikustera joan ginen. Etxolara iristean Tete lurrean etzanda ikusi genuen. “Quédensi aquí, no se muevan”, esan zuen amak aitonarengana gerturatuz. Otarra eta termoa elurretan jarri eta termoa ireki zuen, hotzean kea zeriola. Aitari kafea eskaintzeko keinua egin zuen, baina zutitu eta guregana etorri zen lasterka. Hugok eta biok, 16 urteak beteta, berehala ulertu genuen aitona hilda zegoela.

Aitona, gure babeslekua. Argentinako etxeari Malatesta izena jarri zion. Etxe hark bazuen zerbait magiatik oso hurbil. Itsasora ematen zuten leiho handiak, zuhaitzeko etxola, Mercedes furgoi zaharra, amona bare, lodi, goxo, buru zuri-zuriaren jostura tailertxoak. Dena jausi zitzaidan gainera kolpe batean. Mundua, galaxia. Gure amaren azalak osaturiko lehen babes-geruza zeharkatuta, aita itzalek irentsita, anaia eta biok Julioaren tiraniatik ihesean, Tetek eta Beatrizek eskaini ziguten aterpe, beren istorio eta abestietan, beren jakintza zaharretan, beren altzo oparoan. Aitak guregatik eman zuen bizitza, baina gurea aitona-amonei zor genien.

NOSKI, TOMAS ETA BIOK politikan sartu ginen, hainbat estualditik ere igaroz. Poliziak Txato eta Gurutze Yantzi hil zituenean suzko barrikadak egin genituen Lizarran, eta apaizgaitegirantz korrika igo behar izan ginen, nazionalen helikopteroa buru gainean hegatu genuela. Tomasek hesi guztiak gainditzen zituen erraz, erritmoa motelduz atzean geratzen nintzenean. Tentsio egoera haiek asko batu gintuzten. Parranda, kontzertu eta pogoak ere erruz egin genituen, nahiz eta ni ez naizen sekula oso parrandazalea izan. Gero Tomas futbolari profesional egin zen, ni Iruñera igo nintzen ikastera, eta ia konturatu gabe bananduz joan ginen. Topo egiten genuenean, oso lantzean behin, beti gonbidatzen nuen laguna ginebra, ron edo whisky konbinatua edatera, galdutako botilak akorduan.

Noizbehinkako topaketa horietan, oraindik ere sentipena nuen Tomasek ez zuela inoiz sinetsi botilak Tetek eraman zituenik, eta beti izan ninduela benetako erruduntzat. Azken finean, nik ez nekien botilak bereizten, eta ezin nuen ziurtatu aitonaren mahai gaineko pila hura lapurtutakoa zenik. Ezin nuen ziurtatu, ezta ere, Tomasek sinesmenez ala ni salbatzeagatik seinalatu ote zituen hain argi, horrek bat egiten baitzuen bere izate eskuzabalarekin. Kontuak kontu, beti geratu zitzaidan lagunaren begietara garbi ez egotearen kezka, baina ez nuen inoiz adore nahikoa bildu garbi eta garbi galdetzeko.

Aurreko batean, duela gutxi, Mendabiako kale Nagusitik paseatzen nembilela, laguna topatu nuen Florida tabernako terrazan, beste hiruzpalau lagun ezezagunekin. Ni zutik geratu nintzen, Tomas lagunekin eserita, eta Tomasen lagunak gure arteko solasari begira. Egoera deserosoa. Ez nekien oso ongi zer esan eta mahaian zeuden edariei buruzko komentario tontoa egin nuen:

—Zer, kubatatxoa digestioa egiteko?

Tomasek zirt edo zart bota zidan:

—Ez duzu inoiz edari bat bereizten jakin, ezta botila mahaian bada ere!

Barre algara egin zuen, bere barre karismatiko, indartsu eta tiranikoarekin. Deblauki ulertu nuen botilak ez zituela Tetek eraman, Tomasek berak baizik.

—Zu izan zinen? —galdetu nion ergelki.

Tomasek, erantzun gisa, algara ozenagoa egin zuen. Oroitza-katea etorri zitzaidan: nola ezkutatu genituen elkarrekin, aitonaren etxolan botilak aurkitu genituen eguneko Tomasen ajea, nola falta zen *Parfait amour* botila, nik identifika nezakeen bakarra.

Inoiz izan nintzen nerabea gogoratu nuen, nortasun baten bilaketa, segurtasun-eza, integratzeko desira, onarpen beharra eta munduan leku bat topatzeko irrika. Nire erru-sentipena gogoratu nuen, errugabea izanagatik barrenak jan zizkidana urteetan. Aitona gogoratu nuen, bere etxola eta bere terraza gotiko zoragarria, bere tangoak eta jotak, bere gorpua elurrean ahuspez etzanda eta amaren termo ketsua, nola saihestu nuen...

—Lasai, Paulo —esan zidan Tomasek, irribarre erdi batez—. Ez zenuen behintzat aitona harrikatu.

Kolpeak hatsa kendu zidan. Erruaren berokian bilduta ibili nintzen urteetan, eta orain ulertzen nuen, beranduegi, errua ere badela zergatik jakin gabe bizkarrean zamatzen dugun hondakin

afektiboa, konpondu gabeko kalteen oihartzuna, minaren genealogia, historiaren patu inkontzientea.

Martxoko goiz zalantzarri honetako lanbroan zulo bat marrazterik banu, denboran bidaiatu iragan urrutienara eta zuregana iritsi, aitona, nire begiekin berriro ikusi, behin bada ere, azken aldi batez bada ere, gure Malatesta-enea...

—Horiek liztor langileak dituk —esango zuen Hugok, erlauntza makilarekin seinalatuz.

Eta nire harridura: nondik daki anaiak hitz hori? Irisek, gona berdea eta artilezko jertse grisa, diadema zilar-kolorekoa adats horail luzeak eusten, miresmenez so egin dio Hugori.

—Lana besterik ez ditek egiten bizitza guztian, aita bezala —dio anaiak.

Liztorrak joan-etorrian dabilta, inguruko belardiaren eta habiaren artean. Iris begira ari zaie begi handiekin. Hain ditu Irisek begiak handi pixka bat harritua dirudiela beti, baina badakit ez duela ezeren aurrean atzera egiten. Gero apo bati suziri potolo bat sartu diogu ahoan, jauzika urruntzen ikusi dugu zuhaiztirantz, ahotik ke haria dariola, zarata gorgarri batez lehertu den arte. Aita lihora irten da: “Paulo, Hugo, bazkaltzera! Umeak, etxera!”. Hiruok arineketan egin dugu larrean behera. Aitaren oihuak eta Hugoren algarak iristen zaizkit.

Korrika goaz.

Korrika. Korrika.

IRAGANA DA, badakit, baina inpresioa dut iragan horrek zatitxoak kentzen dizkiola orainari. Nahi bezain mingarria izanagatik ere, ezin diogu egoera eta emozio berberetara itzultzeari utzi. Irudi luke gure bizialdia menturaren menpe dagoela, baina badugu susmoa halako logika bat ezkutatzen dela gure bizipenen atzean. Transmittu ote daitezke bizi-joerak belaunaldiz belaunaldi? Ez nuke jakingo esaten. Batzuetan argi senti dezaket, ordea, nire bizi-lerroa beste batenaren muturrera loturik dagoela, besteren batek hasiriko bidea ibiltzen ari naizela eta, ibilian, guztiz nirea ez den katramila bat askatzen.

Herri erbesteratu batena, agian.